

KIROLARABA FUNDAZIOARI LAGUNTZEKO ERAK

Laguntza motak:

- Dirutan.
- Gauzatan.

a) Laguntza dirutan:

1. Fundazioari egindako zuzeneko ekarpenak haren helburuetarako:

- **90.000 € arteko ekarpenak: babesle mezenas.**

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Presentzia Fundazioak antolatutako ekitaldi guztietan.
- Publizitate guneak instalazioetan.
- Presentzia prentsan, banakako espazioetan.
- Banakako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Baterako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Logotipoaren presentzia Fundazioaren webgunean.
- Zerga onurak.

- **45.000 € eta 90.000 € arteko ekarpenak: babesle lehentasunezkoa.**

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Publizitate guneak instalazioetan.
- Presentzia prentsan, banakako espazioetan.
- Banakako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Baterako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Logotipoaren presentzia Fundazioaren webgunean.
- Zerga onurak.

- **15.000 € eta 45.000 € arteko ekarpenak: babeslea.**

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Publizitate guneak instalazioetan.
- Baterako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Logotipoaren presentzia Fundazioaren webgunean.
- Zerga onurak.

- **6.000 € eta 15.000 € arteko ekarpenak: laguntzailea.**

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Baterako publizitate guneak Fundazioak antolatu edo babestutako kirol ekitaldietan.
- Logotipoaren presentzia Fundazioaren webgunean.
- Zerga onurak.

- **6.000 € arteko ekarpena: jarraitzailea**

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Zerga onurak.

2. Babes izendunak: 1.000 eurotik gora.

Fundazioaren bidez emandako laguntzak, klub, talde edo Arabako kirol federazio jakin bat babesteko, edo jarduera edo kirol ekitaldi jakin bat babesteko.

Fundazioak, aurrez hiru aldeek dagokion babes kontratua izenpetuta, ekarpenaren % 95 destinatzaileari emango lioke eta gainerako % 5 bere helburuetarako gordeko luke.

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Zerga onurak.

b) Laguntza gauzatan:

Fundazioaren bidez emandako laguntzak, klub, talde edo Arabako kirol federazio jakin bati, edo jarduera edo kirol ekitaldi jakin bati gauzazko laguntza helarazteko.

Hiru aldeek dagokion babes kontratua izenpetuko dute, eta bertan jasota geratuko dira ematen diren ondasunak, horien balioa eta onuradunak bere gain hartzen duen kontraprestazioa.

Fundazioak eskaintzen ditu:

- Zerga onurak.

Patronatuaren Erabakia, 2007ko ekainaren 14ko bileran onartua, Patronatuak berak 2009ko ekainaren 22ko bileran hartutako Erabakiaren bidez aldatua.